

**LABURREAN MERKE, LUZEAN GARESTI
(JOKU ARRISKUTSUEK
DAKARTZATEN KALTEAK)**

*“...hobe da zer datorren kontsideratzia,
nolanahi hartzekua ez da gurutzia.”*

JOSE JOAKIN URBIETA (“Kaskazuri”)

Hannot Rodriguezek Euskaldunon Egunkarian arestian idatzi duenez, behi eroen krisia “....ez da jainkotasunak, gizakien gain dagoen Natura absolutuak sortutako gertakari saihestezina, hautatutako ekintza-bide zehatzen ondorioa baizik”. Horrexegatik, hain zuzen ere, gai honen inguruan egin ahal dugun azterketa edo hausnarketa motarik interesgarriena (eta, zoritxarrez, gutxien egin izan dena) gaitz haren jatorriari buruzkoa da; ez naiz ari, noski, jatorri zootekniko hutsari buruz, jatorri sakonari buruz baino.

Eta gaitzaren jatorri sakona zein izan daitekeen argitzeko, Rodriguezek berak aipatu artikuluan ekarri digu gakoa, 1998ko urrian Europar Batzordeak kaleratu zuen txosten baten hitzak gogorarazten dituenan: “Behien Entzefalopatia Espongiformearen krisiak produktibismoan oinarritutako ekonomia politika baten ondorioak nabarmentzen ditu”. Kasu! Europar Batzordea da horrela mintzo dena. Nik neuk arrazoia berari eman (kasu honetan, behintzat; nori berrea!), besterik ez dut egingo.

Nolatan da, bada, behi eroen gaitza produktibismoaren kume? Jakina denez, zientifikoki nahikoa era sendoan ezarria dago gaixotasunaren eragilea den priona (anormalki eratutako proteina) behientzako abere irinez egindako elikagaien bitartez sartzen izan dela. Behar den beste harritzen ez gaituen autofagia honen arrazoia bat baino ez da: abereen elikaduran proteina merkea lortzeko modu bat da; halantxe sartu ziren abereentzako abere-irinak. Behiek behar duten proteina landareen bidez hartuko zuketan normalki, baina Mendebaldeko Europa osoan itzelezko landare-proteina eskasia dago, garai batean haren kaltean zerealen edo alekien aldeko hautu politikoa egin zelako. Gauzak horrela, abere hondakinetatik atera izan da beharreko proteina merkea.

Eta proteina merkea behar da, produktu finala ere merkea behar delako, bestela ezin du-eta merkatuan lehiatu (akabuan! hemen dugu berriro berbatzarra.). "Zeinek merkeago" lasterke-ta ero honek berri nekrologikoen orrialdeetan amaitu ahal du, ikusi izan dugunez. Holakoak, eta beste batzuk, posible dira teknologia eta praktika arriskutsuak, eta logikatik kanpokoak, erabiltzen direlako. Merkatuak agintzen ditu. Eta merkatuak ere agintzen omen du problema baten aurrean erabakiak berandu, partzialki eta gaizki hartu behar izatea. Kontuz! Orain abere-irinak galazo dituzte abere elikagaietan, baina beste hainbat gauza ez dute galazo oraindino, esate baterako hondakin-uren araztegitatik ateratako lupetzak (bai, ondo irakurri duzu, lagun; eta ez da broma bat, halakoak erabiltzen dira-ta oilaskoen zein txerrien elikaduran. Kezkagarriena ez da, hala ere, lupetza horietan dauden gizakion kakak, metal astunak baino).

Teknologia eta praktika arriskutsuak erabiltzen dira harik eta ezbehar handi bat gertatu (edo ezagutu) arte. Hori baino lehenago ez da ezer eteten nahiz eta aztarnak edo susmoak egon. Ez. Aztarnak ez dira nahikoa; gauzak frogatu egin behar dira. Bitartean jai (bakar batzuentzat, jakina).

Halako teknologia arriskutsuen adibide dugu manipulazio genetikoaren ere. Genetikoki manipulaturako lehen produktua Behia Haziarazteko Hormona (BST) izan da. Europar Batasunean debe-

katua dago oraindik, nahiz eta Erresuma Batuak behin baino gehiagotan ahalegina egin duen onartua izan dadin. Baina Estatu Batuetan guztiz legezkoa eta erabilia den bitartean, gero eta gehiago, eta era sakonagoan, agertzen dira txosten zientifikoak hormona hura gizakion minbiziarekin erlazionatzen dutenak. Ez dirudi horregatik gauza handirik gertatzen ari denik. Agian gertatu ere ez da egingo deskalabru handiren bat izan arte.

Serioak izan gaitezene! Gauza batzuk ezin dira utzi merkatu hutsaren eskuetan. Merkatuari mugak jarri behar zaizkio, nahi-taciz, gizalegez jokatu nahi bada. Erabaki batzuk oinarritzko bezain premiazkoak dira; esate baterako elikagaien ekoizpenerako baimendutako osagaien zerrenda positiboak. Asko aipatzen da "arretaren printzipioa", baina jende gutxik daki printzipio horrek ez duela inolako zehaztapenik, ez zuzenbidezko existentziarik, eta, hargatik, bakoitzak nahi duen edukiaz betetzen duela hitz pare hura.

Merke ekoizteaz hitz egin dugu gorago, bai eta produktibismoaz ere. Baina zer da, bada, produktibismoa? Merke ekoiztearekin zerikusia duen zerbait, dudarik gabe; baina gehienbat hitz horrek zera ematen du aditzera, hots, gero eta gehiago ekoiztu beharra. Zergatik behar da gero eta gehiago ekoiztu? Egungo merkatu mundialaren logikan, lotura estua dago merke ekoiztea eta ekoizpena handitu beharraren artean, batzuetan gehiago ekoiztea merkeago ekoizteko modu bat izaten delako. Bestetan, lotura hori honako moduetan ematen da: lehiaren lehiaz, produktu finala gero eta merkeago, hots, ekoizleentzat gero eta prezio baxuago; kostuen murrizketa beti posible izan ez, eta irabazkinen kopurua mantentzeko bide bakarra: produkzioa handitzea...

Baina galderak zutik dirau: Zertarako behar da gero eta gehiago ekoiztu? Merkatuaren logikan arrazoiren bat (edo) aurkitu arren, galdera hura erantzun barik geldituko da arrazoiak guztion interes sozialean oinarritu nahi baldin baditugu.

Jakina, Europaren kontestuan gehiago ekoizteak ez du zentzurik aspaldidanik. Bukatu ziren bigarren gerlaren osteko eskasia garaiak, eta aspaldian iritsi zen Europa autohornidura

maila batera. Gainera, beste muturrera joanda, problemaren zati bat ez da izan, bada, produktu batzuetan dauden soberakinak?

Mundu mailan ere, oinarrizko elikagaien produkzio osoa beharrizan guztien %110 da, nahiz bitartean 30 milioi pertsona gosez hiltzen ari den eta 800 milioi baino gehiagok elikatze eskasia pairatzen duen. Problema ez da, beraz, jateko gutxi dagoela, dagoena gaizki banatua dagoela baino.

Hala eta guztiz ere, gero eta gehiago ekoiztearen lasterketan gaude eta ez omen dugu geure burua zorotzat jotzen. Aitzitik, produktibismoaren sarean egoteak geure burua gero eta profesionalago ikustera garamatza.

Ez da dudarik egon behar. Merkatuaren logika hutsetik aterara behar ditugu gauza batzuk, et guk geuk ere irten behar dugu logika horretatik. Ahaztua dugu azken helburua gizakion beharrizanak asetzea behar dela izan. Eta merkatuak ez du izan behar gure beharrizanen betetzeko arau emaile bakarra. Beste logika batzuetarako lekua egon behar du. Jean-Louis Lavillek erakutsi du jarduera ekonomikoa hiru guneren proportzio ezberdinetan artikulatzen dela; hiru guneok honakoak dira: monetario komertziala (merkatua), monetario ez-komertziala (estatuak eginiko redistribuzioa), eta ez-monetario ez-komertziala (hurbiltasuneko ekonomia, hots, auzokidetasunean ematen diren ondasun eta zerbitzuak). Beharrezkoa zaigu hiru gune horien arteko oreka berri bat.

Azken apuntetxo bat: Lerro hauek idazterakoan jakinarazi da, Alemania behi eroen arazoaren ondorioz, prest omen dagoela nekazaritza politika erabat ezberdin bati ekiteko. Filtrazio batzuk diote Europar Batasunean saltsa datorrela, eta balitekeela behi haragiaren Merkatuaren Antolamendu Bateratuaren erreforma sakona gertatzea. Berri ona litzateke, ziur, gauzak beste norabide bat hartzen joan daitezkeen seinalea bailitzateke.

Jabier Erize

2001ko otsailaren 9an.